

Automobilaren aseguru

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

SEGUROS LAGUN ARO S.A., Espainian erregistratutako aseguru-entitatea (C-0572)



Autoen aseguru

Dokumentu honetan aseguruaren alderdi aipagarrienak laburbiltzen dira, eta, beraz, eskaintzen den informazioa ez da osoa. Informazio osoa aseguruaren proiektuan eta kontratuaren Baldintza Partikular eta Orokorretan jasoko da.

Zertan datza aseguru mota hau?

Aseguratutako ibilgailuaren zirkulazioaren ondorioz hirugarren pertsonari eragindako kalte pertsonal eta materialengatik kalte-ordaina ematean, Automobilaren Nahitaezko Aseguruaren babespean. Kontratutako bermeen arabera, estali ahal izango dira gidariaren kalte pertsonalak, aseguratutako ibilgailuaren kalte materialak eta matxura edo istripua izanez gero laguntza emateko zerbitzuak.



Zer aseguratzen da?

- ✓ Nahitaezko Erantzukizun Zibila istripuagatiko:
 - 70.000.000 € arte kalte pertsonaletarako.
 - 15.000.000 € arte kalte materialetarako.
- ✓ Borondatezko Erantzukizun Zibila.
- ✓ Defentsa Juridikoa eta Kalteen Erreklamazioa.
- ✓ Istripu Pertsonalen Aseguru gidariarentzat:
 - Heriotza.
 - Ezintasun Iraunkorra.
 - Osasun laguntza.
- ✓ Bidaiako laguntza:
 - Ibilgailuarentzat. Km.0
 - Pertsonentzat.
- ✓ Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak estalitako arriskuak.

Aukerako estaldurak:

- Defentsa Juridikoa zabaltzea: erreklamazioa ibilgailua gaizki konpondu delako. Defentsa oinezko edo txirrindulari gisa. Funtsak aurreratzea: 6.000 €.
- Gidariaren istripuetako estaldura zabaltzea: gidariaren istripuetako kapitalak zabaldu ahal izango dira, eta kalte-ordaina emango da baldin eta istripuaren erantzukizuna aseguratutako gidariarena bada.
- Bidaiako laguntza zabaltzea: ibilgailua atotian eramatea bizilekutik hurbilen dagoen tailerrera eta ibilgailua erreskatatzea. Bidaia-aseguru. Eguneroko bizitzarako laguntza ospitalean badago edo etxebizitzan mugitu ezinik.
- Ibilgailuak izandako kalteak: zirkulazioan eta geldirik gertatutakoak.
- Ibilgailuaren lapurreta.
- Ibilgailuaren sutea.
- Beirak.
- Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea.
- Pneumatikoetako kalteak.
- Gidabaimena kentzea.
- Ordezko ibilgailua: istripua gertatuz gero soilik, edo istripua edo matxura gertatuz gero.



Zer ez dago aseguratua?

- ✗ Gidaria mozkortuta, drogen, toxikoen edo sorgogarraren eraginpean dagoenean sortutako kalte pertsonal eta materialak.
- ✗ Gidabaimenik ez daukan edo ibilgailuaren egoera teknikoari buruzko legezko betebeharrak betetzen ez dituen pertsona batek sortutako kalte pertsonal eta materialak.
- ✗ Kaltetunaren jokaeragatik edo zabarkeriagatik sortutako kalte pertsonal eta materialak, bai eta kontratatzailearen edo gidariaren fede gaiztoz sortutakoak ere.
- ✗ Ondasunek izandako kalte materialak, ondasun horien titularrak kontratatzailea, ibilgailuaren jabea, gidaria eta berebat aurrekoen ezkontideak edo familiartekoak direnean, hirugarren graduraino.
- ✗ Ibilgailuan garraiatzen diren ondasunek izandako kalte materialak.
- ✗ Ibilgailuko pertsona-kopuruari edo zamari eta hura garraiatzen bete beharreko betekizunei dagokienez indarrean dagoen legedia haustean izandako kalte pertsonal eta materialak.
- ✗ Apustu, desafio, lasterketa eta lehiaketetan edo halakoak prestatzen ibilgailuak parte hartzearen ondorioz sortutako kalteak.
- ✗ Ordezko ibilgailuaren estaldura matxura izanez gero, espresuki kontratatu ez bada.
- ✗ Auzitegiek eta/edo agintari eskudunek ezarritako isunak, zigorrak eta kostuak.
- ✗ Ibilgailua ezingo da portu eta aireportuetan ibili.
- ✗ Bidaiako laguntzak ez ditu estaliko hirugarren pertsona batzuk salbatzeko edo erreskatatzeko lanetan gertatutakoak, ezta itsasoan, mendian eta basamortuan egin beharreko bilaketen gastuak ere.



Badago murrizketarik estaldurari dagokionez?

Muga nagusiak honako hauek dira:

- ! Borondatezko Erantzukizun Zibila: Nahitaezko Erantzukizun zibila osatzen duten 50.000.000 € arte.
- ! Defentsa Juridikoa eta Kalteen Erreklamazioa: 1.200 €-ko muga, aseguruak profesionala askatasunez aukeratzuz gero.
- ! Istripu pertsonalen aseguru gidariarentzat: 10.000 €-tik 30.000 €-ra bitartean, kontratatutako kapitalaren arabera.
- ! Osasun-laguntza: mugagabea kopuruan eta ezbeharra gertatu denetik 365 egunera bitarteko denbora-mugarekin.

Gidatzeko mugak:

- ! Ezingo dute ibilgailua gidatu 25 urtetik beherakoek eta gidabaimena 2 urtetik beherako antzinatasunekoa dutenek, kontratuan espresuki jasota ez badaude. Istripua izanez gero, aseguruaren konturako zenbatekoa 1.500 €-koa izango da.

Aukerako estaldura-mugak:

- ! Gidariaren istripuetako estaldura zabaltzea: 50.000 €, gehi 10.000 € mendeko seme-alaba bakoitzarengatik, eta gehienez ere 100.000 € heriotza edo ezintasun iraunkor absolutua izanez gero, betiere istripuaren erantzukizuna aseguraturako gidariarena bada.
- ! Bidaiako laguntza zabaltzea: ibilgailuaren erreskatea 1.000 €-ko mugarekin.
- ! Ibilgailuaren kalteak, lapurreta, sutea, kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea: ibilgailuak izandako kalteen, haren antzinatasunaren eta kontratatutako modalitatearen arabera izango da kalte-ordaina.
- ! Ibilgailuak izandako kalteak: kontratuak aseguruaren konturako zenbateko bat ezarri ahal izango du Baldintza Partikularretan eta/edo ibilgailua Lagun Aro Aseguruaren Konfiantza Tailer batean peritatu eta konpontzea, ezbeharra bere gain har dezan.
- ! Pneumatikoetako kalteak: 400 €
- ! Gidabaimena kentzea: hilean 300 €-tik 1.500 €-ra bitartean, 12 hilabeteko mugarekin.
- ! Ordezko ibilgailua: 5 orduko baino luzeagoko konponketetarako. Ondoz ondoko 15 egun natural arte.



Non nago estalita?

- ✓ Ibilgailuari Bidaiako Laguntza ematea: Europako herrialdeetan eta Mediterraneo itsasoaren ertzeko herrialdeetan.
- ✓ Zauritutako edo gaixotutako pertsonen Bidaiako Laguntza ematea: munduko herrialde guztietan.
- ✓ Isunak Erreklamazioa, Gidabaimena Kentzea eta Etxeko Laguntza ematea: Espainian.
- ✓ Gainerako bermeetarako: Europako Esparru Ekonomikoan eta Karta Berdeari atxikitako estatuetan.



Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren urteko prezioa kontratuan ezarritako baldintzetan ordaintzea.
- Kontratu formalizatu aurretik eta haren indarraldian, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztien berri ematea Seguros Lagun Arori.
- Istripua izan dela jakin eta gehienez ere zazpi eguneko epean horren berri ematea.
- Erabilgarri dauden baliabideak erabiltzea, gorabeheraren ondorioak arintzeko.
- Seguros Lagun Arori laguntza istripuarekin zerikusia duten izapideak behar bezala egin ditzan, haren informazio osoa eta egiazkoa emanez eta horri buruzko jakinarazpen judizial, judizioz kanpoko edo administratiboen berri emanez.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratu formalizatzeko unean eta haren urteroko berritze-datan egingo da ordainketa. Baldintza partikularretan jasotakoaren arabera egin beharko da, eta bankuan helbideratuz edo zenbatekoa bitartekariari entregatuz egin ahal izango da.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan hasi eta amaituko da aseguru. Ondoz ondoko berritzeen ondoren, ordaindu den aseguru-aldia bukatzen den egunean eta orduan amaituko da.



Nola hutsaldu dezaket kontratua?

Jakinarazpen idatzia bidaliz, indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago.